

XXIV.
Txakolin
eguna
Amurrión

EKAINAK 4



Gehigarri
berezia

Elkarrizketa



“Aiaraldearrak dira gure txakolinaren bozeramaile nagusiak”

ARABAKO TXAKOLINA ELKARTEKO PRESIDENTEA DA MARIANO ALAVA. 2022KO UZTAZ, HONEN EMAITZAZ ETA AURTENGO TXAKOLIN EGUNAZ MINTZATU DA



Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Ate-joka dago aurtengo Txakolin Eguna. Arabako Txakolinaren Elkartetik nola doa antolakuntza?

Aurten data aldatu behar izan dugu hauteskondeekin festak kointziditu ez zezan. Aurrekoren batean ere gertatu zaigu; maiatzaren azken asteburuan antolatzen dugu Txakolin Eguna eta hauteskundeak ohikoan data hauetan ospatzen dira ere. Espero dugu, data aldatu arren eguraldia gure alde egotea, eta festa ez izorratzea.

Urteak dramazkigu jai antolatzen, eta lasaitasunez heldzen diogu erronkari. Badakigu gauzak nola egin: ondo ateratakoak errepikatuz eta hobetu daitezkeenak moldatuz. Halaber, antsietate puntu txiki bat ere sortzen digu aurreko edizioetako arrakasta errepikatu nahi izatea edota hobetzea.

Bestalde, jaiaren prestakuntzan laguntzen eta parte-hartzen duten eragile eta lagun guztien prestutasuna ere eskertu beharra dago. Antolakuntzak bezain ondo ezagutzen dute Txakolin Eguneako festa, eta detaile txikiak eskapatzen zaigunean ere, hor daude adi, guri laguntzeko prest. Asko eskertu behar dugu kolaboratzaile guztien ekarpena.

Urtez urte harrera beroagoa du jaiak. Nola eragiten dio horrek Arabako Txakolinaren Jatorri Deiturari?

Sektorean beharrean gaudenontzat festa egun handia da Txakolin Eguna, lan asko egin behar dugun arren.

Oso egun inportantea da ekoizleontzat, ez solik salmenten ikuspegitik, baizik eta gure produktuen erakusleihorik onena ere badelako. Oso eskertuta gaude hain tokioa den produktu baten inguruan horrelako zerbait lortu izanagatik.

Eskualdean ohikoa da asteburutan kanpora joatea; Txakolin Eguna, ordea, gorritz markatutako eguna da egutegian. Pozgarria da ikustea jendeak zenbateko gogoekin heldzen dion egunari.

Gasteen inplikazioa ere nabarmentzekoa da. Ardoarekin hainbesteko lotura ez duen sektore bat izanik, festa protagonista ere badira. Iaz egundoko giroa sortu zen erromerian eta ordu bete luzatu behar izan genuen. Hori dela eta, aurten, festa zertxobait luzatzea erabaki dugu.

Finean, oso pozik gaude eskualdeko jendearen harreara beroarekin, ezin dugu gehiago eskatu.

Arabako Txakolinaren enbaxadore berria izendatuko duzue datorren igandean. Nor izango da?

Beti saiatzen gara Arabako Txakolina, arabako produktuak eta orokorrean euskal gastornomiako produktuak munduan zehar aurkezteko gaitasuna duen norbait izendatzen enbaxadore. Aurten Jose Antonio Merino Cañamero sukaldaria hautatu dugu. PerretxiCo jatetxe-katearen proiektua asko ari da hazten, eta erakusleio ezin hobe dela uste dugu gure txakolinarentzako.

Nolako izan da 2022ko uzta?

Itxura guztein kontra, oso uzta ona izan da. Azken urteetan beti izaten dugu zailtasunen bat edo beste, asko

aldaketa-kilmatikoari lotuak. Iaz oso temperatura altuak jasan behar izan genituen, eta horrek mahastian eragin oso negatiboak izango zituela uste genuen. Azkenean, landareak lortu zuen egoera horri aurre egitea, eta kantitateari dagokionean, ia errekorreko uzta jaso genuen.

Uzta jaso aurreko azken asteak paregabeak izan ziren, baldintza klimatologikoen aldetik. Azken hamabost egunak determinateak dira, eta eguraldia gure alde egon zen. Horrek eragin oso positiboa izan zuen mahatsaren heldutasunean, eta produktuaren kalitatean. Amaiera borobila eman genion uztari, inolako zailtasunik gabe.

Eta, honezkero ekainean egonda, nola aurreikuspen duzue 2023ko uzta?

Izozteekin hasi genuen udaberria, mahastiak ernale-tzen hasi ziren unean, hain zuzen ere. Neguko klima onberaren ondorioz, ernalketa hori oso goiztiarra izan da, hori ekiditeko ahaleginak egin genituen arren. Urteko lehenengo hiruhilekoko temperatura altuek eta ur eska-siak alarma guztiak piztuarazi zizkigun.

Azken hamabostaldi honetan, ordea, aurreikuspen guztien kontra, udazkeneko baldintzekin egin dugu topo. Horrek asko lagundu digu, eta mahastiei lasaitasuna ekarri die.

Gaur gaurkoz mahastiak ikusgarri daude, mahats-mordo ugariarekin. Osasun baldintzak ere paregabeak dira. Hemendik aurrera, kazkabarra etorri ezean (eta hori ekiditea ez dago gure esku), uzta inportantea izan dezakegu iraila bukaeran. Goiz da aurreikuspenak egiteko, baina badirudi hasierako pesimismoa aise gainditu dugula.

Txakolin eguna

Amurrioko kaleak hartuko ditu Arabako Txakolinaren jaiak

Txakolin Egunaren XXIV. edizioa antolatuko dute datorren ekainaren 4an. Bertan aurkeztuko dituzte Arabako-Txakolina jatorri deitura osatzen duten zazpi upategiek 2023eko uztaren emaitzak, eta egun osoko egitaraua prestatu dute.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Arabako Txakolinaren erakusleho izango da berriro ere Amurrio. Arabako Txakolina elkarrekin Txakolinaren festa handiaren XXXIV. edizioa antolatu du datorren ekainaren 4ean; Arabako Txakolina Jatorri Deituraren barruan dauden zazpi upategiek ardorik onenak jendaurrean erakusteko plaza.

Azken urteetako arrakastari jarraituz, aurten ere, parkean bilduko dute egitaraua.

Egun osoko egitaraua

Festa giroak goizetik arratsaldera hartuko ditu Amurrioko kaleak, eta bereziki Amurrioko parkea, hori izango baita egitarauaren erdigunea.

11:30ean, Udalbatza aretoan eskainiko duten ohorezko aurreskuarekin eta 2022ko uztaren aurkezpen ofizialarekin emango diete hasiera jardueri. Bertan izendatuko dute 2023ko Arabako Txakolinaren enbaxadore berria: Jose Antonio Merino Cañamero, sukaldaria eta PerretxiCo jatetxearen jabea. Aitortza honekin, Arabako produktuen promozioan Merinok egindako lana goiraipatu nahi du Arabako Txakolina elkarteak.

12:00etan txupinazoa jaurti, eta orduan bai, Juan Urrutia Parkean kokatua egongo den jai-barrutiak atek zabalduko ditu. Arabako txakolinik onena dastatzeko aukera egongo da bertan. Gastronomía eskaintza za-



Fasta-giroak Amurrio hartuko du maiatzaren 22an, eta Amurrioko Parkea izango da erdigune. **Arabako Txakolina**

bala izango da ere. Ohi bezala, Euskolabel zigiludun produktu ugari dastatzeko aukera egongo da: Euskalparrillak kozinatutako baserriko oilaskoak eta txerri sahieskiak, Izoriako gazta, Burutxaga harategiko odoloste eta txistorra edota KroketaK.eus proiektuaren askotariko artisau kroketa talo ekologikoak.

Azokak eskainiko dituen produktu guztiez gozatzeko, karpa atonduko dute parkean. Bertan kokatuko dituzten mahai jarraituetan pintxoak eta anoak dasta-

Zazpi ekoizleren uzta probatzeko aukera egongo da parkean atonduko duten jai-eremuan

tzeko aukera egongo da. Aurten Internet bidez eskuratu beharko dira tiketak, ilara luzeak ekiditeko. Elexondo kalean Artisanu-produktuen erakusketa eta salmenta atonduko dituzte, tokiko zein Euskal Herriko beste txokoetako artisauen topaleku.

Jai-giroa nagusi

Musikaririk ez da faltako. Ugarte Otxoteak girotuko ditu kaleak. 17:00etan, aldiz, Erruki Erromeriak kontzertua eskainiko du parkean, arratsaldeko 20:00ak arte.

Txakolin eguneko EGITARAUA

11:30 // **Uztaren aurkezpena, ohorezko auresku eta Arabako Txakolina 2023 enbaxadorea izendatzea** Udalbatza aretoan

12:00 // **Txupinazoa eta jai-esparruaren irekiera**



11:30etik 17:00etara **Mahai luzeekin hornituriko dastaketa-karpa** Juan Urrutia Parkean

12:00etatik aurrera // **2023eko txakolinaren, pintxoaren eta errazioen dastaketa** Juan Urrutia



Aiaraldeko Garrafa dastatzea Guk eskulturaren

Artisanu-produktuen salmenta Elexondo kalean

Ugarte Otxotea Amurrioko kaleetan zehar



17:00etatik 17:00etara **Akerbeltz erromeria** Juan Urrutia Parkean



AMURRIO

EKAINAK 4 2023

TXAKOLINA DASTATZEA-2022KO UZTA
ARTISAU PRODUKTUAK, ERAKUSKETA ETA SALMENTA
UGARTE OTXOTEA
DASTAKETA GASTRONOMIKOA
AKERBELTZ ERROMERIA

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK




BABESLEAK



UPATEGI PARTEHARTZAILEAK



Elkarrizketa



“Aiaraldeko peña ez da geldirik egoten, ziur gaude kontzertu polita egingo dugula”

AKERBELTZ TALDEKO ABESLARIA DA JONKASS (Zornotza, 2001). TXAKOLIN EGUNEAN KONTZERTUA ESKAINIKO DUTE AMURRIOKO PARKEAN; ZIURTATU DU FESTA ETA DANTZA IZANGO DIRELA NAGUSI.



Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Prest zaudete Txakolin Egunean Amurrioko parkean eskainiko duzuen kontzerturako?

Prest gaude, noski! Amurrion eta Aiaraldera bueltatzea plazera da, oso gustura gaude beti. Show berezi bat prestatu dugu, antolakuntzak zehaztutako denboretara egokitua. Normalean jotzen ez ditugun abestiak joko ditugu, denboraldi berrikoak. Publikoak kaña handia igarriko du.

Bi orduko kontzertua, atsedetik gabe. Gainera, badakigu Aiaraldeko peña ez dela geldirik egoten, ziur gaude erantzun polita jasoko dugula publikoaren aldetik. Aiaraldeko kontzertuetan beti jaso dugu erantzun ona.

Arratsaldean jotzea ere erakargarria da, desberdina. Ondo dago lantzean behin gaua alde batera utzi eta arratsalde giroan jotzea.

Iaz ere bertan izan zinen, Erruki erromeriarekin batera. Nola gogoratzen duzu kontzertua?

Gogoratzen dut egundoko sargoria egiten zuela. Txakolina edanda poz-pezik igo ginen eszenatokira. Oso ondo joan zen dena. Hasieran jende gutxi zegoen eszenatokian, egiten zuen eguzkiarekin ezinezkoa zen hor behean egotea. Baina kontzertua hasi ahala betetzen joan zen, eta gero izugarriko jendetza elkartu genuen.

Erruki erromeriaren lehenengo kontzertua, gainera, Amurrioko kintoetan esakini genuen. Amurrion bueltatzeko modurik onena izan zen Txakolin Eguna. Ez genekien zer zen, ez genuen festa ezagutzen, eta izugarria izan zen aurkitutakoa.

Pena igandea izatea, egundoko gogoia genuen festan jarraitzeko. Kontzertua amaitu zenean jendeak ez zuen inora alde egiteko asmorik, eta soinu teknikariak musika jartzen ibili ziren.

Uda sasoia ate-joka dago, eta plazaz plaza aritzeko unea da, gogotsu zaudete?

Oso gogotsu gaude! Lan piloa egin dugu. Neguan bira txiki bat egin dugu areto desberdinetatik, baina plazetan probatzeko gogoia daukagu; gu plazetakoak gara. Laster iragarriko ditugu udako datak, baina tralla handia izango da; Akrebltzek ez du sekula hainbeste jo azken 15 urte hauetan.

Zuzenekoetan rollo ona eta konexioa aurkituko ditu publikoak. Abesti berriak ditugu, eta parte hartzea nahi dugu sustatu. Etengabeko konexioa, bai jotzen ditugun abestiek, baita koreografiekin ere. Gauza askoa aldatu ditugu, patxangoa gehitu dugu... Kontzertu batetik bestera ere asko aldatuko dugu erreperitorioa. Aurreko kontzertu batean *No es extraño* abestia eskatu ziguten sutsuki, eta orain jotzen hasi gara. Pot-pourriak ere aldatu ditugu.

Etengabe porobak egiten gaude. Publikoak juerga itzela aurkituko du. Nahi duguna da juerga sortzea herri guztietan eta gu horren parte izatea. Esperientziak eta ausardiak definitzen du Akerbeltz. Ibilbide luzea du taldeak baina aurten molde asko apurtuko ditu.

Askatasuna aldarrikatu nahi dugu. Inolako erasorik gabeko jaiak nahi ditugu, eta musikan ere berdina aldarrikatzera goaz. Inolako konplexurik gabe.

Aurten 15 urte bete ditu taldeak, eta hori ospatzeko kontzertuak eskaini dituzue. Nola aldatu da taldea urte hauetan guztietan?

Taldea izugarri aldatu da. Ni duela urtebete batu nintzen taldera, baina zuzenekoetan ikusi izan dut. Hasieran oso rockero hasi ziren. Izena bera ere oso rockeroa da, hasierako talde horren influentzietan oinarrituta. Hamabost urte hauetan abeslariak aldatu egin dira, musikariak ere...


Nik Uste Akerbeltzek jakin izan duela jendearen gustueta-rra moldatzen. Erromerietan eta orokorrean euskal txosnetan entzuten den musika horretara egokitu da, eta hori jakin du egiten. Rock musikatik trikitira igaroz, eta orain musika elektronikora jauzi eginez.

Guk ibilbide guzti horren nahasketa egin dugu, eta orain denetarik jotzen dugu.

Izan
AMURRIO

amurrioko merkatarien elkarte

Bizi Amurrio
Txakolin eguna 2023



OSTALARITZA
BEZEROA MERKATARITZA
ONLINE DENDA ZERBITZUAK



www.izanamurrio.com



Txakolina munduan

Arabako Txakolin salmentaren %30 baino gehiago suposatzen du nazioarteko merkatuak, eta zifra hori gaitzetzeko lanetan jarraitzen dute ekoizleek. Inflazioak ekoizleei eta inportatzaileei buruhauste ugari eragin dizkien arren. Ukrainako gerra ere faktore garrantzitsua izan da nazioarteko hedapenean.

Nazioarteko merkatu berrietara zabaltzea dute erronka txakolin ekoizleek



Nazioartean arrakasta handiko edaria da Arabako Txakolina. Aiaraldea.eus

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Arabako Txakolinaren nazioarteko proiektuak haziz jarraitzen du, eta merkatu kuota berriak irabazi nahi dituzte ekoizle eta upategiek. Mariano Alavak, Arabako Txakolina Elkartearen lehendakariak, produktuen kalitate "paregabea" jarri du nazioarteko arrakastan horren erdigunean; "gure produktuak erosten badituzte oso onak direlako da".

Inflazioaren urtea

Halaber, azken urtea berezia izan da txakolin ekoizle-

tzat, inflazioare eta nazioarteko ekonomiaren egoera ziurgabearen ondorioz. "Material guztien kostuak gora egin du nabarmen, baita energia eta erregaien prezioak ere. Horrek guztiak eragin zuzena izan du ardoaren prezioan, eta nagusiki nazioarteko esportazioan", azaldu du Mariano Alavak. "Alde batetik, upategiok arazoak izan ditugu kutxak, botilak eta abarrekoak eskurtzeko. Bestalde, inportatzaileek ere arazoak izan dituzte; kontenedoreak helmugara bidaltzeko zailtasunak izan dituzte".

Aurreikuspen negatibo horiek mahai gainean izanda, bezero askok antelazioz hornitu dira,

"Material guztien kostuak gora egin du nabarmen, baita energia eta erregaien prezioak ere"

eta stockean gabeziarik ez izateko behar baino gehiago inportatu dutela azaldu du Arabako Txakolina Elkartearen lehendakariak; "merkantziarik gabe gertatzea kezka nagusia zen".

Hori dela eta, salmenta oso onak izan ziren 2022ko lehenengo hiruhilekoan, eta horrek salmenten datuak zertxobait desitxuratu ditu, aurreko urteekin alderatuta. "Gaur gaurkoz, azken urteetako batz besteko bat eginenez, esportazioak salmenten %30 baino gehiago suposatzen du Arabako Txakolinarentzat. Datu horiek handitu nahi dugu. Izan ere, txakolinaren kontsumitzaile potentzialak izan daitezkeen zenbait merkatuetan sartzen hasiak gara", azaldu du Alavak. Nagusiki Arabako Txakolina Hego Amerikako eta Asiako merkatuetara zabaltzea da orain tokiko ekoizleek aurrera begira duten erronketako bat.

Badira, ordea, sendotuz doazen merkatuak, non ardoaren kontsumoa garagardoaren kontsumoarekin lehiatetik gertu kokatzen ari den, Mariano Alavak aitortu duenez. "Oso merkatu inportanteak dira, eta Europako herrialdeetako datuak gaitzetzeko doaz ardoaren kontsumoari dagokionean, historikoki ohitura gutxiago izan duten arren gisa

honetako produktuetan. Asko ari gara hazten Estatu Batuetan, Japonian, Australian edota Kanadan".

Mariano Alavak argi du zein den nazioarteko arrakasta horren gakoetako bat, eskaera eta eskariaren arteko oreka ondo gordetzea. "Arabako Txakolina Jatorri Deituran zuzentzeaz jokatu egin izan dugu, eta gure eskaintza eskariaren atzetik joan da beti. Gainproduktzioa ekidin nahi izan dugu beti, horrek kalitatean eragin negatibo zuzena izango lukeelako zalantzarik gabe. Oreka horrek ere, prezio orekatu bat mantetzen lagundu digu", aitortu du elkartearen lehendakariak.

Ukrainako gerra

Ukrainako gerrak ere eragin zuzena izan du txakolinaren nazioarteko hedapenean. "Azken urteetan irabazitako merkatuak galdu ditugu, espektatiba handiak genituen Errusiako merkatuan sartzeko. Ukrainian urteak generamatzen gure produktuak saltzen, eta orain merkatu hori ere galdu dugu. Egoera nola bideratuko zain gaude, berriro ere merkatu horietan Arabako Txakolina sartzeko", azaldu du Mariano Alavak.

"Arabako Txakolina Jatorri Deituran zuzentzeaz jokatu izan dugu, eta gure eskaintza eskariaren atzetik joan da beti"

BAT GARA
BODEGA

Txakolina ulertzeko beste era bat

info@batgara.com
www.batgara.com
609 884 826



Garate Txakolindegia

“Upategi txikia da gurea eta produktu berezitua ekoizten saiatzen gara, mimo handiarekin”

EGOITZ ZUBIAUR (Laudio, 1978) GARATE TXAKOLINDEGIKO ARDURADUNA DA. GARATEKO GAINEAN DAUKA MAHASTIA ETA UPATEGIA. MIMO HANDIZ LANDUTAKO LURRAK DIRA BERTAKOAK, ETA MODU NATURELEAN EKOIZTEN DITU UPATEGITIK ATERATZEN DIREN TXAKOLIN MOTA DESBERDINAK

Nolako izan da 2022ko uzta, Garate txakolindegiarentzat?

Uzta ona izan da. Euri faltagatik ekoizpenak zertxobait egin du behera, baina osasun aldetik bikain atera dira mahatsak. Nahiko nuke uzta guztiak azken hau bezalakoa izatea! Klimatologia onberak, mahastia modu naturalagoan lantzeko aukera eskaini digu.

Bilketa irailean egin genuen, ohi-koan baino ia hilabete lehenago. Mahatsa perfektu atera da, eta txakolina, kalitate aldetik, zoragarria!

Produktu berriak ekoizteari ekin diozu upategian.

Iaztik ari naiz produktu sofistikatuago bat garatzen. Mahastia lursail desberdinetan dugu banatuta, eta bakoitzean mahats barietate desberdin bat lantzen dugu. Horrekin guztiarekin, txakolin desberdinak ekoizten ditugu: monobarietalak. Hau da, mahats mota bat bakarrik txakolin desberdin bakoitza ekoizteko.

Zerk definitzen du Garateko txakolina?

Gure ekoizpen prozesua naturala da, ez dugu inolako herbizidari erabiltzen. Arreta berezia jartzen diogu

lursail bakoitzean hazten den mahatsari. Gurea bezalako mahasti txiki batean ere alde handia egon daiteke toki batean edo bestean hazten den mahatsaren artean. Faktore askok eragin dezakete: lursailaren orientazioak, inklinazioak, hezetasunak, lurzorua... Txakolinaren eboluzioa zeharo desberdina da. Upategi txikia gara eta mimo eta arreta bereziarekin egindako produktuak dira gure ikurra.

Amurrioko Txakolin Egunean egongo zara. Zer onura du horrek ekoizlearentzat?

Oso gauza polita da, azken finean aurpegia jartzen diozu ekoizleari. Normalean botila bat hartzen duzunean, bere itxurak, etiketak... erakartzen dizu arreta. Ordea, ezagututa barruan duena eta ekoizpen prozesua nolako izan dan, balio erantsia ematen dio txakolin horri.

Nola dago txakolinaren komertzializazioa?

Tabernako barra, galduta ez, baina burua altxatu ezinik ikusten dut nik; pandemiak zauri sakona utzi du. Nik beti esan ohi dut; ohiturak habito bilakatzen direla. Gutxiago po-

teatzen da. Bi urteko etenaldiaren ostean poliki poliki ari da tabernetako eskaintza normaltasuna berreskuratzen. Prezioen gorakadak ere kolpea eragin du ekoizleengan. Botilen prezioa esaterako bikoiztu egin da. Nik gainera Burgosetik ekarri behar ditut botilak. Horrekin batera garraioa eta gainerako lehengai guztiak ere garestitu dira.

Nazioartera ere egin duzue jautzia.

Gutxika bada ere ari da merkaturazabaltzen. Bartzelonara botilak eramaten hasi gara, eta Estatu Batuetara ere aurki bidaliko ditugu gure produktu batzuk. Badago ere Japoniara hurbiltzeko proiektua ere mahai-gainean dago.

Aurtengo uzta nola aurreikusten duzu?

Hasieran beldurtuta nengoen. Martxoan eta apirilean abuztuko eguraldiarekin egon gara, tenperatura oso altuak eta giro lehorra. Mahastiak egundoko abiadura hartu zuen.. Zorionez maiatzeko euriek eta giro hezeak berriro ere ekarri dute bere onera mahastia. Horrela jarraitzen badu oso uzta ona izango dugula koan dago.



Garate
Txakoli

Goienuri bidea 20 - Laudio (Araba)
659 06 03 91 // josuegoitz@gmail.com
www.txakoligarate.com

Txakolin uzta

%59 egin du gora aurtengo txakolin uztak eta maximo historikoetatik gertu kokatu da

2021eko uzta %59an gainditu du aurtengoak, eta 2020ko uztako maximoetatik oso gertu geratu dira bildutako 716.000 kilogramoak. Kalitate aldetik ere “emaitza paregabea” izan dela nabarmendu dute Arabako Txakolina Jatorri Deiturako ekoizleek. Uda sasoi hastear, aurreikuspen onekin begiratzen diote 2023ko uztari.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Zailtasunak zailtasun uzta oparoa izan da 2022koa, eta txakolin ekoizleen hitzetan kalitate handiko produktu batean izan du emaitza. Klima aldakor batek markatu du azken uzta. Mariano Alavak uda sasoiako tenperatura altuetan jarri du fokua. “Iazko udako sargoriak eta tenperatura altuek estres handia eragin zuten mahastian. Hori dela eta, alarma guztiak genituen piztuta”, azaldu du Arabako Txakolina Elkarteko lehendakariak. Gainera, azken urteetako joera jarraituz, 2022ko uzta aurreratu egin behar izan zuten: “Normalean urri erdialdean biltzen dugu mahatsa, baina azken urteetan irailera aurreratu behar izan dugu uzta jasotzea”.

Halaber, uzta jasotzeko egunen aurretik izandako eguraldia paregabea izan zela adierazi du Mariano Alavak; “mahatsari behar bilatzen genuen heldutasunera iristea baimendu zion eguraldiak, eta uzta borobildu zuen”. Arabako Txakolina Elkarteko lehendakariaren iritzi, azken egun horietan

“Iazko udako sargoriak eta tenperatura altuek estres handia eragin zuten mahastian. Hori dela eta alarma guztiak genituen piztuta”

ko baldintzak determinanteak izan ziren aurtengo txakolinak lortu duen “kalitate paregabea bermatzeko”.

Uzta oparoa

2021eko uzta izozteek eta Mildiu onddoaren agerpen bortitzak markatu zuten. Horren eraginez, produkzioak behera egin zuen nabarmen. 2022ko uztak, ordea, egoera negatiboa iraultzea lortu du. Hain zuzen ere, aurreko urtearekin alderatuta, %59 egin du gora mahats produkzioak azken uzta honetan. “Kantitate aldetik, errekorra gainditzetik oso gertu egon gara”, adierazi du Alavak.

Datu zehatzetara ekarrita 716.000 kilogramo mahats bildu dituzte azken uztan. “Zifra horrek 2020ko kopurua errepikatzen 2.000 kilogramora utzi gaitu”. Urte hartan 718.000 kilo mahats bildu zituzten, azken urteetako kopururik handiena.

Kalitate ona

Mariano Alavak 2022ko uztatik ateratako txakolinaren “kalitate paregabea” nabarmendu du. Horren frogatzat jo du nazioarteko salementen goraka



Uztaren kalitatea oso ona izan dela azaldu dute adituek. Aiaraldea.eus

da etengabea. “Merkatu horietan ez gaituzte erosten laguntasunagatik. Baldintza berdinetan lehiatzen gara mundu osoko ardoekin, eta ala eta guztiz ere salmentek gora egiten jarraitzen dute. Gure txakolinaren kalitatea ukalezina da”.

Urtarrilean egin zituzten lehen aurre-dastatzeak, eta EHUko Zentzumen Laborategira eraman zituzten gero laginak, kalifikazio ofiziala eskuratzeko. Une horretan baieztatu ahal izan zuten ardoaren kalitatea ona zela.

Aditu gehiago ere bat datoz txakolinaren kalitate onarekin, Errioxako Unibertsitateko enologia irakasleek ere gorai patu egin dute aurtengo ardoa.

Aurreikuspen oparoa

Uda ate-joka dagoen honetan aurtengo uztari begirajarri dira Arabako Txakolina Jatorri Deiturako ekoizleak. Maiatzeko eguraldi hezeak asko lagundu duela aitortu dute guztiek, eta udan kaskabarra edo aparteko sargoririk egon ezean 2023koa ere uzta oparoa aurreikusi dute kantitate aldetik.

“716.000 kilogramo mahats bildu dira azken uztan. Zifra horrek 2020ko kopurua errepikatzen 2.000 kilogramora utzi gaitu”

ARTOMAÑA
Txakolina

Zure ospakizunetan "Eukeni Aparduna" rekin topa!



EGIN ZURE ESKAERA!



ENOTURISMOA · GASTRONOMIA

620 007 452

www.artomanatxakolina.eus



Araba Kalitatea



araba  álava
foru aldundia diputación foral

